


# Hondamenak aldatu ez zuena



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**P**as-de-Calais departamendua (Frantzia), 1906ko martxoaren 10a. Lenetik gertu, Courrièresko meatzetan, ikatz-hautsak su hartu eta eztanda izugarria eragin zuen goizeko 06:34ean. Ordura arteko meatzaritzako istripurik larriena izan zen: ofizialki 1.099 hildako eragin zituen eztandak, baina ziurrenik gehiago izan ziren arauzko kontraturik ez zuten langile asko aritzen baitzen Compagnie des mines de houille de Courrières enpresarentzako lanean.

Eta ziurrenik gutxiago izango ziren, konpainiak krisia beste modu batera kudeatu izan balu. Enpresaren lehentasuna meatzea ustiatzen jarraitzea izan zen, hau da, meatzearen azpiegiturak zainetzeaz arduratu ziren, langileez kezkatu gabe. Erreskate lanak hirugarren egunean eten zituzten; hainbat hobi hormatu zituzten sutea itzaltzeko eta egitura sendotzeko, oraindik bizirik zeudenei irtenbidea eragotziz; aireztatzeko fluxua aldatu zuten, eta barruan zeuden meatzariak eta erreskate taldeak aire freskorik gabe utzi zituzten.

Eta, hala ere, martxoaren 30ean, istripua gertatu eta 20 egunera, 13 meatzari onik ateratzea lortu zuten. Inork ez zien lagundu; alderantziz, oztupoak besterik ez zituzten topatu. Meatzeko galerietan atzera eta aurrera, kilometroak eta kilometroak ibilita, eta hildakoen jan eta edanari esker iraun zuten bizirik.



COMPAGNIE DES MINES DE COURRIÈRES

Protestak berehala piztu eta zabaldu ziren. Courrièresko meatzariak abiatutako greba estatu osora eta Belgikako zenbait meatzetara zabaldu zen. Protestaldiaren une gorenean 60.000 meatzari zeuden greban. Baina sindikatuen arteko barne gatazkek ahuldu zuten mugimendua eta akabera George Clemenceauk –orduan barne ministro zenak eta aurrerago lehen ministro izango zenak– eman zion, meatzarien aurka 30.000 militar mobilizatuta.

Courrièresko hondamena meatzariak erreskatatzeko talde profesional antolatuen jatorritzat jotzen da. Baina,

bestela, ezer gutxi aldatu zen Courrièresko naiz beste meatzetako langileen segurtasun baldintzetan. 1942ko apirilaren 26an Txinako Benxihu ikatz-meatzetan gertatutako istripuak Courrièresko marka beltza hautsi zuen: 1.549 meatzari hil ziren.

Eta ezer gutxi aldatu zen 20 egunez meatzean egon ondoren bizirik irteendako bi meatzarirentzat. Txinakoa gertatu zenean oraindik Courrièresko zuloan lanean ari ziren biak, istripuaren ondoren beste 42 eta 45 urtez jardun baitzuten bertan, beste erremediorik, beste bizibiderik ez zutelako. ●

## Ponpeia Proiektu Handia 2014-2020

2014an Ponpeia Proiektu Handia jarri zen abian, 2.000 urtetan lurrikarak, higadura, espoliazioa –eta askotan ahazten edota propio ezkutatzen den arren, Bigarren Mundu Gerrako aliatuen bonbardaketa– jasan dituen aztarnategia berreskuratzeko.

Sei urteko proiektua aurten amaituko dute. Guztira, 45 eraikin zaharberritu dituzte, eta Regio V eremua, orain arte

ikertu gabea, induskatzen hasi dira. Berritutako eraikinen artean, Amoran-teen etxean egindako lana nabarmentzen da, 80ko hamarkadan lurrikara batek kalte handiak eragin baitzizkion.

Regio V eremu berrian, aldiz, Leda eta beltxargaren freskoa (ezkerreko argazkian) eta balkoien kalezuloa aurkitzea izan dira berririk aipagarrienak ●



CESARE ABBATE / PARCO ARCHEOLOGICO DI POMPEI